

DEPOSITO LEGAL S. S. 657/70

Impreso en «ICHAROPENA» - F. Unzurrunzaga, Víctor Pradera 2 - Zarauz - 1970

ESTELAS FUNERARIAS DEL PAIS VASCO

(ZONA NORTE)

Edición bilingüe

por

DON JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN

ilustraciones

DON JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN

TXERTOA

Plaza de las Armerías, 4 - Apartado 767 - San Sebastián

INSTITUTO DE ESTUDIOS VASCONGADOS

EUSKALERRIKO ILLARRI-BIRIBILLAK

— ATARIA —

Euskalerrian leendik datorkigun ondorio batezaz nai nuke mintza ekinaldi ontan: Ipar-euskalerrian oraino ageri diren illarri biribillezaz, alegia. Orien berri billa ibilia bai naiz urte batzuetan.

Illobiaren buruan zutik ezarria ikusi dezu iñoiz, toki batzuetan, arri luze bat, buru birilla: erri askotan ilharri edo ilarri «illen arri» deitzen diote; batzuetan berriz hilargi edo ilargi «illen argi»; baita gizona, harri-gizona, eta kurutze-burubeltza ere, L. Colas eta Pierre Lafitte'k diotenez (1).

Oraindik ere sinismen eta egintza askoren ezaugarri eta euskarri degu illarria gure artean. Gizakiaren gain datorkigun egitarau edo biziko eraena berak adierazten

(1) *La Tombe Basque*, pág. 7 (Bayonne, 1923). Pierre Lafitte *Atlantika-Pirene-etako sinheste zaharrak*, p. 14. (Bayona, 1965).

ESTELAS DISCOIDEAS DE VASCONIA

— PÓRTICO —

En este breve ensayo dedicado a un aspecto de las tradiciones de Vasconia, nos referimos principalmente a unas estelas funerarias discoideas de Bajos Pirineos, cuyos caracteres hemos ido registrando en nuestro fichero durante varios años de investigación y de estudio.

La estela funeraria o piedra enhiesta en la cabecera de la tumba, es llamada generalmente *ilarri* «piedra de difuntos»; en algunos sitios, *ilargi* «luz de los muertos», «Luna». L. Colas y Pierre Lafitte recogieron también los nombres *gizona* «el hombre», *kurutze-burubeltza* «la cruz de cabeza negra» y *harri-gizona* «el hombre de piedra» (1).

La estela es hoy todavía símbolo, sujeto y soporte de un mundo de creencias y de una actitud humana vinculada a un ideal que trasciende esta vida terrena.

(1) *La Tombe Basque*, p. 7. Bayonne, 1923.—Pierre Lafitte, *Atlantika-pirenetako sinheste zaharrak*, pág. 14 («Gure Herria». Bayona, 1965).

bai digu. Erlijiozko eraen ortan, illen begirakunak baidu zerikusi; baita beraz illarriak ere. Esoiñ ori gabe, illarria ez liteke ezagun.

Ori dala-ta, eraen orren gaiak, erriyakintzan direnez, emen zeaztatzea bearrezko degu: eriotzagaz darabiltzki-gun oikundeak —zenbait sinismen, esaunda eta jardun-bide, alegia— eta bere inguru eta aldamenak, naiz aurretikoak, naiz-ta geroztikoak.

— ASTEN DEGU —

Aurrez oiñaze eta beste naigabe asko ditu-eriotzak. Alaz ere, kristau-sinispén eta itxaropenean albiziturik, onartzen dute eriotza euskaldunek.

Oiñazea ez da errez oniritzia, iñoiz balei ere; baiñan bai aiseago ulertzen, Kristoren eriotz izugarriari begira eta auxe gogoetan degula: Kristoren aginteetan itxaro zutela, gure etxeko eta adiskide asko bare il zirela. Gai ontan, gure biziko egokera askotan bezela, iduri uts diren oiñarriak ez dute kemenik sortzen, ezta ere lanerako indartzen; goi-eraen baten bidez aurrerazi gaituzten lagunen oroipenak dute gure jokaera zuzentzen.

Forma parte de un sistema religioso en el que el respeto a los antepasados desempeña papel importante, y sólo en él sería comprensible.

Por eso hemos de recordar aquí los elementos de tal sistema en cuanto están integrados en la vida popular. O, concretándonos a nuestro caso, debemos tratar de conocer las vigencias colectivas —creencias, mitos y prácticas— relativas a la muerte y a sus antecedentes, así como a las reacciones subsiguientes y a toda la trama de relaciones que forman su contorno habitual.

— DONDE EMPIEZA —

Aparte del dolor y de otras molestias físicas que frecuentemente preceden a la muerte, ésta es aceptada en general con fe y esperanza cristianas por la población vasca.

No es fácilmente comprendido el dolor, si alguna vez lo es; pero sí explicado ante un modelo —Cristo— que murió sufriendo atrocemente, y ante el recuerdo de deudos y amigos que murieron confiados en las promesas del Redentor. Es que en este caso, como en todas las situaciones más importantes de la vida, no son los principios abstractos los que más eficazmente movilizan las almas y perfilan las conductas, sino los modelos concretos de personas destacadas en el cumplimiento de un ideal supremo.

Junto al ideal cristiano, que ocupa generalmente el centro de visión, podemos vislumbrar a veces vestigios de otras concepciones —animismo, magia, materialismo— que merecen ser registrados.

* * *

Gaitzak berezkoak direla geienetan oi da uste. Ba-dire ordea gaixotasun batzuen errua Gaizkiñai egozten dietenak aidetikakoai alegia, edo biraoai edo etsaien baten adurrari, ustez izaki oiek Erioa igiarazten dutela-ta. Erio norbait dala toki askotan entzun oi da; Bizkai'n ordea Balbe ere deitzen diote, Azkue'tar R. M. jaunak digunex (2).

Gaixoari nozierazten eta eriotza luzaerazten dioten izakiak, lekuan lekuko izen bereziak dituzte: Bedia'n Gaizkiñak, Ziorrotza'n Autzek, Ataun'en Birauek, Ibarruri'n Patuek, Otxagabia'an Gaiztoak, Liginaga'an Aidegaixtu.

— IGARAZKETAK —

Eriotza, biziera baten azkena eta beste baten asera: esaera danex. Ba-degu or igaratze bat; berari dagozkion neurriak ez dire abantziak: ala sortu dire zenbait egin-tza, oikunde eta esaunda: errietan eta errikoiak zuzen bete oi dituztenak, noski.

Bate-bat ilzorian agertzen delarik, leenate edo au-zoak —elizbidean eskubi-aldeetik lenen dagon etxean bizi danak— osagilleari eta apaizari dei egin bear die. Elizakoai apaizaren ondotik laguntzea ere, bere egitekoa da.

Elizakoak urbil direnean, etxeko norbait, larmenena —aita, ama, seme-zarrena edo beste— bi ezkobillo piz-

(2) Euskalerriaren Yakintza, I, 214 or. (Madrid, 1935).

La enfermedad es generalmente atribuida a causas naturales. En algunos medios tiene también su vigencia la creencia de que las enfermedades, o al menos ciertas enfermedades, son debidas a causas místicas: a genios o espíritus —*aidetikako*—, a maldiciones —*birao*—, a la fuerza mágica —*adur*— de algún enemigo, que ponen en acción a *Erio* que es el genio de la muerte o la muerte misma personificada. En alguna comarca de Vizcaya este genio es llamado *Balbe*, según R. M. de Azcue (1).

Los genios llamados *Gaizkiñak* en Bedia, *Autzek* en Cenarruza, *Patuek* en Ibarruri, *Birauek* en Ataun, *Gaiztoak* en Ochagavía y *Aidegaixtu* en Liginaga hacen sufrir a ciertos moribundos y prolongan su agonía.

— RITOS DE PASAJE —

La muerte es considerada como término de un modo de vida y principio de otro. Es, pues, un pasaje y, como tal, es rodeada de precauciones especiales que se traducen en ritos y costumbres fielmente observados.

Cuando una persona se pone gravemente enferma, es el *leenate* o *auzo* —vecino que habita en la primera casa a la derecha del camino de la iglesia— quien tiene que llamar al médico y al cura. El mismo acompaña al Viático, yendo detrás del cura que lo lleva.

Cuando el Viático está llegando a la casa del enfermo, la persona más caracterizada de su familia —padre,

(1) *Euskalerriaren Yakintza*, Tom. I, pág. 214 (Madrid, 1935).

tuak eskuan, irten bear zaie eta gaixoaren gelaraño lagun.

Gaixoaren aitorketa eta geroztiko otoitzen ondoren, apaizak Jauna eriarri ematen dio eta, larrialdia delarik, baita erienigurtzia edo anontzioa ere. Orrelako garaietan, leenateko emakume bat, etxeakoak eta aide batzuek an izan oi dire.

Auzoko lagun bik edo geiagok gaubeila egiten dute egun ortan eta gaixoari lagun ondorengoetan ere erioztaraño edo ilzoria dirauen artean.

Gaixoa okertzen delarik edo Erioak estutzen, ondoan diren lagunek Andre Mariaren goretsak eta aldi ortan oi diren beste otoitzak egiten dituzte. Ezkoargia (elizan Ganderairuz bedeinkatua) pizten dute, gaixoari ondoan jarri eta beragaz iñoiz gurutzegin. Baita urbedeinkatuaz eria eta gela zirpizindu ere, gaizkiñak uxatzeko. Gaixoa eriotzan estu delarik, leenateak elizako ezkilajoleari adierazten dio, oi diren ezkilak leen-bait-leen jo ditzan.

Eriotzaren luzatzeaz, zenbait erritan etxeke batek gainestaliaren teilla bat jaso oi du —gaixoaren gogo edo arimari bidea ideki—, ustez eta eriotza laburtuko den ala. Ithurrotze'n, digutenez, eriarren gelan leioa erdizabaliz jartzen zuten, arima zerurontz joan zedin. Ziortza'n, Meñaka'n eta Oyartzun'en etxeke leio eta ateak ideki oi dituzte.

Bat iltzen delarik, ez da uste bere izaera amaitu denik. Oraino bizi da: arima, bizi-indarra bere asmo,

madre, hijo mayor—, provista de dos velas encendidas, le sale al encuentro y le acompaña hasta el aposento del paciente. Tras la confesión de éste y las preces del ritual, el cura le administra el Viático y, si el caso urge, le administra igualmente la Extrema-unción. En tales actos se hallan presentes una mujer de la primera casa vecina y algunos familiares y parientes.

Dos o más personas de la vecindad hacen *gaubela* «vela nocturna» y le atienden desde aquella noche al enfermo, hasta su muerte o hasta que se halle fuera de peligro.

Si el enfermo empeora o entra en agonía, las personas que se hallan en su habitación recitan las letanías de la Virgen y las oraciones consagradas por la Iglesia para tales casos. Encienden una vela (la bendecida en la iglesia el día de la Candelaria) y la colocan junto al agonizante y con ella le signan de vez en cuando y le asperjan con agua bendida, lo mismo que la habitación, a fin de alejar a los malos espíritus. El primer vecino anuncia el hecho al campanero de la parroquia a fin de que éste toque las campanas usuales en estos casos.

Si la agonía se prolonga, en algunas regiones los familiares del enfermo levantan una teja de la techumbre de la casa (Sara, Garazi). Por allí le queda salida libre al alma. Se cree que esto facilita la muerte. En Ithurrotz entreabrían la ventana de la habitación donde estaba agonizando una persona, a fin de que el alma saliera hacia el cielo. En las regiones de Cenarruza, de Meñaca y de Oyartzun abren también las puertas y las ventanas de la casa.

Muerta una persona, no todo se acaba para ella. Se cree en la supervivencia de algo suyo, del alma, de la

gogo eta naimenagaz, ez da illa. Norkia ez da ezereztu, naiz eta soñak —lurrezko irozkai edo lurrarekin bat eragiten zion eskarriak— ez dio erantzun. Oiek guztiak gizakiagaz eta munduagaz irizpide berezi bat adierazten digute —ez ordea Euskalerrarena bakarrik—: gure ikusgai den mundu onen azken-esoña agertzen diguna alegia.

Aste gurenean edo Kristoren Igokunde-jaian edo eurtsu den egunean bat iltzen ba-da, betiereko zorionean sartu omen dela esaten dute leku batzuetan.

— DEIAK —

Norbait iltzen danean, bere etxeakoak lanari uzten diote. Leenatea egiten da lan oien jabe, illotza etxean den artio. Berak, lagun bat ondoan duela, illa jaxten du —erlijio-soñekoagaz, ezkontzara eraman zuen jantziagaz, edo beste: tokian tokiko eran—; ezko-gurutze bat ere eskuetan jartzen dio. Gero illaren aide eta auzoai, apaiz eta ezkila-joleari, eriotzaren berri ematen die.

Elizako ezkilak elizbarrutiari eriotza adierazten dio.

Leenatea edo etxeko bat illaren erletegira joaten da, erlauntz bat eskuz jotzen du eta ango «andereñoai» mintzatzen zaie, Liginaga'n bezelatsu, auxa esanaz: «Iatzar zite, buruzagia —edo etxekoanderea— hil zaizie». Berdin esan oi die etxeko abereai ere, leenik jeikieraziaz,

fuerza vital con su capacidad de percibir, de pensar y de querer. La persona no ha perecido, si bien ha abandonado su soporte material y terreno. Esto supone una especial concepción del hombre y del mundo —no ciertamente exclusivo de nuestro pueblo— en la que el orden natural halla su sentido y su referencia final.

En algunos pueblos existe la creencia de que el morir en Semana Santa, o el día de la Ascensión del Señor o en tiempo lluvioso, es señal de que el difunto se ha salvado.

— AVISOS —

Ocurrida una defunción, los familiares del muerto suspenden sus trabajos y comunican la noticia al primer vecino. Este, con los suyos, amortaja el cadáver —con hábito religioso, con el traje que vistió al casarse, etc.—, según es costumbre en varias comarcas; le coloca una cruz de velilla en las manos y se encarga de los avisos usuales en tales casos y de los trabajos de la casa mortuoria. Comunica también la noticia al cura, al campanero, a los parientes, etc. Las campanas de la iglesia anuncian la defunción a los feligreses de la parroquia del muerto. Es costumbre también que el primer vecino o un familiar del difunto anuncie el fallecimiento a las abejas propias golpeando con la mano las colmenas y diciendo palabras semejantes a estas de Liginaga: *Iatzar zite, buruzagia hil zaizie* «despertaos, se os ha muerto el amo». A los demás animales domésticos (a los cuales obligan primero a levantarse, si estaban echados) les transmiten el mismo aviso. No procediendo así,

etzenik ba-dire. Ez bada ori egiten, erleak iltzen omen dire, baita abereen bat ere.

Bi auzolagunek illa zaitzen dute. Toki batzuetan, erletegiko erlauntz bat oyal beltzez estaltzen dute, baita etxeko arma-arria ere, eta ixpilluak eta ate-aundiko lora-buketa (Donibanez bildua).

— HILBIDEA —

Ill ondoren (leenengo edo bigarren egunean) illotza —bere etxekoak, leenatea, auzoak eta aideak lagun— elizara daramate. Illa etxetik ateratzen dutelarik, auzoak ateratzen du aren aberetaldea bere ikullutik.

Abukua edo biliki-lagunak erletegiaren ondotik igaro ba-dire, auzolagun batek erlautzen estalki edo baldiak jasotzen ditu, ala erleak ezko geiago eginen omen dute.

Abukua bide berezian —ortarako betidanik izentatua— ibili bear da, gurutzearen eta illaren gibeletik. Bide au etxearen, elizaren eta illerriaren eskarrizat auzoan daukate. Ara emen bere izenak, lekuan lekukoak: Zurrunbide Naparro'ko erri batzuetan; Elizabide, Uhart-Mixe'n; Hilbide, Doneztebiri'n; Erribide, Ondarrabi'n; Korputzbide, Andoain'n; Gorputzbide, Ataun'n eta Oyartzun'en; Kuutzebide, Zegama'n; Kurtzeko-bide, Meñaka'n; Andabide, Ziortza'n, Orozko'n, Kortezubi, Bedia'n eta Berriz'en; Camino de anteiglesia, Soskaño'n; Camino de la iglesia, Galarreta'n.

luego mueren las abejas y alguno de los otros animales domésticos. Dos vecinos velan el cadáver durante la noche.

Poco después de la defunción, según es costumbre de algunas comarcas, cubren con velo negro una colmena del colmenar de la casa, el escudo de armas que figure en la fachada del edificio, los espejos de las habitaciones, el ramillete de flores recogidas el día de San Juan que se halla sujeto a la puerta principal.

— CAMINO —

Uno o dos días después del fallecimiento el cadáver es conducido a la iglesia con acompañamiento de sus familiares, parientes y vecinos. Cuando el cadáver es sacado de su casa, el primer vecino hace que salgan de ella los animales domésticos. Si la comitiva pasa junto al colmenar de la casa del difunto, un vecino levanta las tapas de las colmenas. El camino que ha de recorrer la comitiva fúnebre en estos casos es fijo. Es el que une la casa mortuoria con la iglesia y el cementerio. Recibe diversos nombres, según las comarcas: Zurrunbide en pueblos de Navarra, Elizabide (Uhart-Mixe), Hilbide (Saint-Esteben), Erribide (Fuenterrabía), Korputzbide (Andoain), Gorputzbide (Ataun, Oyartzun), Kuutxabide (Cegama), Kurtzeko-bide (Meñaca), Andabide (Cenarruza, Orozco, Cortezubi, Bedia, Berriz), Camino de anteiglesia (Soscaño), Camino de la iglesia (Galarreta), etc.

Bide au, illeta eta kideko ibillaldietan bearrezko da. Beste bideetan ahukua ezin liteke sar. Baldin, ezbearrez, illobia eta aurretik dijoan gurutzea bate-baten lurretan zear igaro badire, lur ori denen-bide bilaka liteke. Ala entzun degu toki askotan, batez ere Kortezubi'n eta Ithurrotz'en.

Abukua bide-gurutzeetan gelditzen da, oi dan otoi-tza egiteko.

— OPARIAK —

Illetak elizan dirauen artean, ezkobillo eta orrelako ezkoargi asko, pizturik, jarleku edo obigainean egoten dire: aideen eta auzoen opariak. Opari oien erdian berriz argizaioola, gizaidurikoa bera, ezkoariz inguratua: an, ehortzi-illen iduri bezela, beti dagona.

Argiaz gañera, beste opari bat ere obi edo jarlekura eramán oi dute: janaria.

Oroigarri da antziñako oitura bat, toki batzuetan gaurdaño iritxi zaiguna bera: auzoko neska-gazte batek ahukuan saski bat ogi eta gañean ezko-aria eramaten zuen eta gero obigainean jarri. Ogi oiek —olatak— iruburukoak geienak oi ziren, laukoak batzuek: triskele eta swastika iduri zuten.

Este camino ha sido respetado —aún lo es en muchos pueblos— y no debe ser utilizado otro para la conducción de los cadáveres de sus respectivas casas. Y, si por hallarse intransitable algún trozo del mismo, fuese preciso conducir un cadáver, o la cruz parroquial que le precede, por un terreno particular, el hecho crea allí servidumbre de camino (Cortézubi, Ithurrotz).

En las encrucijadas que hubiese en el camino se detienen todos los asistentes y rezan un responso en cada una.

— OFRENDAS —

Durante la celebración del oficio fúnebre en la iglesia, muchas velas y velillas arrolladas arden en la sepultura simbólica que la casa del difunto posee en el templo. Son ofrendas que hacen los parientes y vecinos del finado. En medio de ellas está la *argizaioola* o la tablilla antropomorfa (en la que va cerilla arrollada), símbolo permanente de los antepasados en aquel sitio enterrados.

Además de la ofrenda de luces, se hace sobre la misma sepultura otra no menos importante: la ofrenda de comestibles.

A este propósito cabe señalar la antigua costumbre, conservada hasta nuestro tiempo en algunos lugares, consistente en que una joven vecina del difunto llevara a la iglesia una cesta llena de panes destinada a estar, durante las exequias, en la «sepultura» de la casa del muerto. Estos panes de ofrenda tenían en muchos casos tres picos —alguna vez de cuatro—, de suerte que reproducían la forma de una suástica o de un triskele.

Beste opari mota: illeta-garaian, abere bat obiganean. Oderiz'en, Irañeta'n, Arraiz'en eta Arano'n zikiru bat ekartzen zuten. Oyartzun'en zikirua elizaurrean egoten zen. Bera'n, Lekaroz'en, Ziga'n eta Beorburu'n berriz adagia obiganean jartzen zuten.

Aintziñatik eldu dire oikunde oiek. Ziortza'n, XVIII mendean, ogiak, adagia ollo eta urdaia eskeintzen zituzten eta illobi-gañean jarri. Aita Larramendi'k diotex, elizako atarira idi edo aari bat eraman oi zuten (1). Gorosabel'ek dio berriz, oparizat eliz-atarira idi-bikotea aurkezten zutela, naiz eta gero diruz ordaindu eta etxerat itzuli (2). 1787n urtean Aizarnazabal'go elizatarira idi bat, bere adarretan lau librako ogi bi sartuak, eraman omentzuten, bertako apaiz-nagusiaren illeta zala-ta (3). Oraindik berak dio, 1796n urtean Berastegi'ko apaizak auxe nai zutela: illen oiñordeko ziren etxejabeak illeta bakoitzean aari bat, maizterrak berriz olloak, oparizat eman bear zituztela, oitura «santa» zala-ta (4). Urki-jo'tar Julio jaunak XVIII mendeko idazki batean ikasi zuen Azkoiti'ko oikunde au: illetan, idi bat elizatarira eramaten zutela eta gero zortzi dukaten truke etxera biurtu (5). Berak jakin zuen ere beste berri bat, Agirre'tar Domingo'k 1898n urtean Oikina'n ikusi zuen gertaera batena alegia. Gipuzkoa-Oikina'ko elizatarian, illen elizkizuna zala-ta, idi bat emen zegoan, «kasulla»

(1) *Corografía... de Guipúzcoa*, 194n or... Barcelona, 1882.

(2) *Cosas memorables de Guipúzcoa*, tom. II, lib. VII, cap. IV, secc. IV, pág. 501. Bilbao, 1967.

(3) *Ibid.*

(4) *Ibid.*

(5) *Cosas de antaño* (RIEV, t. XIV, pág. 351. Abril-Junio 1923).

Otra forma de ofrenda, antes muy general, consiste en llevar a la sepultura algún animal que allí ha de permanecer mientras duran las exequias. En Odériz, en Irañeta, en Arraiz y en Arano (hacia 1880) es un carnero llano. También en Oyartzun llevaban hasta el pórtico de la iglesia un carnero que allí debía estar durante la función del entierro. En Vera del Bidasoa, en Lecároz, en Ciga y en Beorburu la carne es uno de los elementos de la ofrenda a los muertos. Esta costumbre de ofrendar carne y animales vivos viene de tiempos antiguos. En Cenarruza, en el siglo XVIII figuraban en la ofrenda panes, carne, gallina y tocino. Según el P. Larramendi, era general la costumbre de llevar en los grandes funerales a la puerta de la iglesia un buey vivo o un carnero (1). Gorosábel dice que era bastante común «la costumbre de presentar en ofrenda la casa mortuoria un par de bueyes en la puerta de la iglesia... así que la de pagar un tanto por su rescate». «Así es que todavía en 1787, en los oficios fúnebres celebrados por el alma del difunto rector de la iglesia parroquial del Consejo de Aizarnazabal, se presentó en las puertas de ella un buey vivo con dos panes de a cuatro libras clavados en las astas» (2). Según el mismo Gorosábel, «el Cabildo de Berástegui tuvo en 1796 la pretensión de obligar a los herederos de los difuntos las ofrendas de un carnero los propietarios, y de gallinas los colonos, costumbre que denominaba santa» (3). D. Julio de Urquijo extracta de un documento del siglo XVIII re-

(1) *Corografía... de Guipúzcoa*, p. 194. Barcelona, 1882.

(2) *Cosas memorables de Guipúzcoa*, tom. II, lib. VII, cap. IV, secc. IV, p. 501. Bilbao, 1967.

(3) *Ibidem.*

bategaz jantzia, parpallak lepoan eta ogi bat adar bakoitzean. Toki berean Ukiyo jaunak, «Cosas de antaño» izentatzen duen idazkian digunez, Calahorra'ko elizbarrutian 1602n eta 1700n urteetako legedian ez omentzuten abere-oparirik aipatzen, bañan bai illetara ilda-koaren zaldia eramatea galerazten (6).

— ILLEN AZKURRIA —

Oraindik zenbait lekutan ez da sinismen zaar bat galdu: ezkoargiak, ogiak, adagia, arrautzak, etc. ildakoai argi egiten eta beren azkurria ematen dielako illarrietan jarri bear direla.

Ortaz Kortezubi'n jakin nuen esaunda oargarri bat, geroztik Euskalerrri'ko beste auzunetan ere entzun de-

(6) Aldi artan Araba, Bizkaya eta Guipuzcoa'ren zati bat Calahorra'ko elizbarrutikoak ziren.

lativo a costumbres de Azcoitia, lo siguiente: «En la ofrenda se llevaba a la Puerta de la Iglesia un Buei, que se rescataba por ocho ducados» (1). El mismo autor recoge la noticia de un hecho presenciado por Domingo de Aguirre hacia el año 1898 en Oiquina, en el siguiente párrafo: «A la entrada de la iglesia de Oiquina (Guipúzcoa), durante un entierro, hallábase tranquilamente un buey, con la cabeza hacia la puerta, al que habían adornado con una casulla negra, borlas en el pescuezo y un pan en cada uno de sus cuernos» (1).

En el mismo artículo sobre «Cosas de antaño» dice Urquijo que en las Constituciones Sinodales del Obispado de Calahorra de los años 1602 y 1700 no hay ninguna alusión a ofrendas de animales, si bien se prohíbe en ellas que se lleve el caballo del difunto al entierro (2).

— ALIMENTOS DE LOS MUERTOS —

Todavía se conserva en algunos sitios la vieja creencia de que tales velas y tales ofrendas de panes, de carne, de huevos, etc., alumbran y alimentan a los muertos en su existencia ultraterrena.

A este respecto cuentan en Cortézubi que en las minas de Somorrostro se desplomó el techo de una ga-

(1) *Cosas de antaño* (en «Revista Internacional de los Estudios Vascos», t. XIV, pág. 351. Abril-Junio de 1923.

(1) RIEV, t. XIV, pág. 350.

(2) Alava, Vizcaya y gran parte de Guipúzcoa pertenecían a la sazón al obispado de Calahorra.

dana. Somorrostro'ko meazuloetan luizi batek meatzari-sail bat azpian ehortzi omentzuen. Urteen buru beste langille batzuek lur ura irauli eta kendu omentzuten eta an, usgune batean, meatzari bat bizirik arkitu omentzuten. Gernika-inguruan den Axangiz'koa omentzen. Nola usgunean ainbeste urtetan bizi zitekean jakin naita, bere egoitzagaz galde omentzioten. Bere erantzuna auxe: an loturik igan zuen egonaldi luzean, egun batez bakarrik argiak uts egin ziola. Egun ura bere ama, ekaitz batek galerazirik, ezkoargia obigañean piztera joan etzan eguna omentzan.

Esaunda ori bera Berastegi'n ezaguna zan berriki, ogi eta adagiaren oparia obietan jartzea bearrezkoa dala adierazteko. Ataun'en ildakoai argia, lastoizpi batena bederen, piztu bear diegula esan oi dute.

IKUSKA'n (1949, 35n or.) Liginaga'ko bizikera-gaz auxe idatzi nuen: Illel elizkizunera ez da orain oparirik eramaten; baiñan oraino urte gutxi dire bizpairu ogi elizan eskeintzen zituztela. Illeta-garaian yarlekuan edo obian zeudelarik, ogi oien azkurria ildakoaren ari-mak jaten zuela esan oi zuten. Aldi oietan illoe-inguruan eta illarrian pizten dituzten ezkoargiak il dakoari argi egiten diotela ere entzuten genduen.

Illel elizkizunetan oparitzat eskeintzen dituzten ogien alde bat ildakoen animak jaten dutelazko sinis-mena ba-da Oyartzun'en, Andoain'en eta Axpe'n. Orre-

lería, dejando sepultados a muchos mineros. Años después fue desescombrado aquel sitio y en un hueco fue hallado vivo un minero. Este era de Axanguiz, aldea de la región de Guernica. Interrogado acerca de su situación y de cómo había pasado tanto tiempo en aquel paraje, declaró que, durante su larga permanencia en aquella prisión, sólo un día había estado privado de luz. Era el día en que su madre, impedida por una tormenta, no pudo ir a la iglesia a encender la velilla en la sepultura familiar.

En Berástegui cuentan la misma leyenda para justificar la costumbre de llevar ofrendas de pan y luces a las tumbas. En Ataun se oye decir que hay que ofrendar luces a los muertos, aunque sólo sea encendiendo una simple pajuela.

De Liginaga dije lo siguiente en IKUSKA (1949, pág. 35): «Con motivo de funerales, no se llevan actualmente ofrendas a la iglesia; pero hasta hace algunos años, se ofrendaban dos o tres panes. De éstos se decía que, durante el oficio fúnebre, perdían toda su sustancia nutritiva, la cual, según creencia popular, había sido comida por el alma del difunto en cuyo sufragio hacían las exequias. Dícese también que las luces que en tales ocasiones arden en la iglesia, alrededor del ataúd y junto a la sepultura, alumbran al difunto en el otro mundo».

Según informes de Oyartzun, Andoain y Axpe, existe en estos pueblos la creencia de que las almas de los difuntos comen realmente parte de los panes que, como ofrenda, se colocan sobre sus sepulturas en las iglesias durante la celebración de las exequias y misas. En con-

gatik Aretxabaleta'n esaten dute, obigaiñean egon ez-
kero, ogiak ez direla leen bezain astun (1).

— SUAK —

Beste opari-mota bat —au ere illetarekin dabil-
na— gauzen erreketak izan oi da, naiz eta orain leena-
gokoen irudikur soil-utsa izan. Mende onen leen-urte
edo bosturrenetan, ildakoen oepekoa erretzeko oitura
nun-nai zan. Oepekoak lastoz edo txuikiñaz beteriko
zorro aundiak izaten ziren. Ara bere izen batzuek, le-
kuan lekukoak: lastaia, lastaida, lastaira, lastailla, las-
tuntzi, lastamarragia. Oepeko ori menastaz egiña ba-zan,
bere lekuan eskuta bat lasto erre oi zuten. Erreketa,
hildakoen leen-bidegurutzean, illeta ari zan bitartean
—edo gauaz, oituren arabera—, egiten zan. Suegilleak
Gure Aita esaten zuten lastaira piztean, eta toki ba-
tzuetan sua urbedeinkatuz zirpizintzen. Sutoki orren au-
tsak oar bat ziren bidaztientzat: auzoko etxean norbait
il zala eta bere alde otowitz egin zezatela. Orain oikunde
au alde gutxitan da ezagun (2).

(1) J. M. de B., Eusko-Folklore, 1.^a Serie, 1926, or. 43.
(2) Anuario de Eusko-Folklore. III, passim.

formidad con esta creencia, dicen en Arechabaleta (Gui-
púzcoa) que el pan de la ofrenda, después que ha es-
tado expuesto sobre la sepultura, pesa menos que an-
tes (1).

— FUEGOS —

Otro tipo de ofrenda o rito fúnebre es la combus-
tión de objetos, símbolo de viejos sacrificios. Aún en
los primeros lustros de este siglo estaba muy extendida
la costumbre de quemar el jergón de la cama donde
hubiese muerto una persona. Entonces los jergones eran
de paja o de perfolia de maíz. De ahí sus nombres de
lastaia, *lastaida*, *lastaira* y *lastamarragua* (de *lasto* «pa-
ja»). Si el jergón era metálico, en su lugar se quemaba
un manojo de paja (Sara). La operación se hacía en
una encrucijada de *hildide* mientras se celebraba en la
iglesia el oficio fúnebre, o en la noche inmediata, según
costumbre de cada localidad. Quienes quemaban el jer-
gón, rezaban al mismo tiempo un *Pater* y, en algunos
sitios, asperjaban la hoguera con agua bendita. Los re-
siduos de la combustión recordaban al viandante que
pasara por el lugar, la defunción ocurrida en la casa
próxima y le invitaban a que rezase una plegaria por
el muerto. Ahora son raros los lugares donde vigen
estos ritos (2).

(1) Eusko-Folklore, 1.^a Serie, 1926, pág. 43.
(2) Anuario de Eusko-Folklore, III, passim.

Illeta ondoren, ehortzea. Sara'n, esateko, illetan egon diran lagunak, elizara joan diran eran ateratzen ere dira, elizgurutza, apaizak eta illoia aurretik dirala. Illerrira dijoatz. Ildakoaren etxeak an bai du bere illarria. Ara irixtean, abukua gelditzen da. Oi dan otoitza apaizak egiten dute, illoizaleak zerraldoia illarripean sartzen dute; bitartean abukua karrikara irteten da eta an zerbait atseden, ildakoaren etxeruntz errengan, Gure Aita eta Requiem edo De profundis ixilik esan artio. Gero danak sakabanatzen.

Urrundik etorriak eta aideak, leenatearen deiaz, illaren etxera biurtzen dira. Lastaillaren edo lasto-eskutaren erreunara diralarik, gelditzen dira eta bertan Aitaregin eta illaren alde otoitz ixila bakoitzak egiten du. Gero etxean sartzen dira, leenatea eta bere andrea lagun, eta Mezatako-bazkaria —salda, adagierrea eta kafea— artzen dute. Ondoren De profundis esan eta aldegitzen dute. Lastailla erretzen ez duten tokietan —Uhart-Mixe'n eta Benabarre eta Zubero'ko erri askotan— illeta ondoren, leenateak eta ildakoarekin zeregin erabili dutenak, il-etxera dijoatz. Atarira irixtean, auzoko batek lasto-azaua lurrean jartzen du eta sua ematen. Guztiak suaren biran jartzen dira eta Gure Aita, Ave eta

Después del oficio fúnebre que se celebra en la iglesia parroquial, tiene lugar el sepelio. En Sara, por ejemplo, todos los asistentes al funeral salen en el mismo orden en que llegaron a la iglesia, precedidos de la cruz parroquial, del clero y del féretro. Llegado éste junto a la sepultura —que está en el cementerio que rodea a la iglesia—, se detiene el cortejo. Cuando el clero haya terminado de rezar allí las preces del ritual, los conductores del féretro introducen éste en la fosa o en el sepulcro de la casa del difunto, mientras los del cortejo desfilan delante y salen a la calle. Aquí se detienen formando fila en el camino de la casa mortuoria. Cada uno reza en voz baja alguna oración, como *Pater*, *Requiem* o *De profundis*, y se disuelve el cortejo. Tan sólo los forasteros y los parientes del difunto, a invitación del *leenate* «primer vecino», vuelven a la casa mortuoria. Al pasar por el lugar donde haya sido quemado el jergón de la cama del difunto o el manojo simbólico de paja, se detienen delante de los residuos de la combustión, se santiguan y rezan por el muerto. Entran en la casa mortuoria junto con el *leenate* y su mujer y hacen la refacción llamada *mezatako-bazkaria* «la comida de las misas», que consiste en caldo, carne guisada y café. Al fin rezan *De profundis* y se retiran.

En los pueblos en que no se quema el jergón del muerto, como es el caso de Uhart-Mixe y de otros de Baja Navarra y de Zuberoa, después del oficio fúnebre el primer vecino y cuantos han prestado diversos servicios y trabajos ocasionados por la muerte, se dirigen hacia la casa mortuoria. Al llegar delante del portal, un

Requiem esaten. Gero etxean sartzen dira eta illetako bazkaria egiten (1).

Doneztebiri'n eliz-kantariak darabilki egintza auen eraena. Ildakoaren etxea elizatik urrun ba-da, illeta-bazkaria erriko ostatu batean egin oi da. Ara dijoatz beraz illeta-ondoren, elizkantaria lagun, aideak, auzoak eta beste. Lasto-azaua ostatuko atarian erretzen dute eta aren biran illarrietatik datorren abukua gelditzen da eta oi dan otoitza bertan egin (2).

Esan gentzake Euskalerra guztian dala illetara joaten direnai bazkal-deia egiteko oitura: illetako oturuntza egin dezaten alegia, naizta orain bazkari oi leen zuen goi-mamirik gabe eltzen zaigu.

Otazu'n, illeta-ondoren, abukua bi sailletan —aide urbillenak edo honra'koak eta auzo-adiskideak edo karidade'koak— ildakoaren etxera dijoatz, eta an oturuntz txiki bat egiten dute —ogia, gazta eta ardoa. Aran-tximelak ere artzen dituzte eta batzuek beren etxekoentzat eramaten, guztiak illaren alde otoitz egin dezaten. Gero bi saillak biltzen dira abukuan dagon zaar baten

(1) Barandiaran'go Jose Migel: *Matériaux pour une étude du peuple basque: à Uhart-Mixe* (IKVSKA, n.º 6-7, or. 174-175).

(2) Barandiaran'go J. M., *El mundo en la mente popular vasca*, IV, or. 69 (Donostia, 1966).

vecino deposita en la tierra un *lasto-azau* «manejo de paja» y le prende fuego. Todos los presentes rodean la pequeña fogata y rezan un *Pater, Ave* y *Requiem*. Seguidamente se introducen en la casa y hacen la comida de entierro (1).

En Doneztebiri es el chantre de la parroquia quien dirige esta ceremonia. Cuando la casa mortuoria se halla lejos de la iglesia, la comida de entierro tiene lugar en una posada del pueblo. Allí, pues, se dirigen, después del entierro, los parientes, vecinos, etc., con el chantre. En tal caso el simbólico manojito de paja se quema delante de la posada y en el mismo sitio se detiene el cortejo que regresa del cementerio y ejecuta la mencionada ceremonia de rezar alrededor de las cenizas (2).

Puede decirse que en gran parte de los pueblos de Vasconia existe la costumbre de obsequiar a algunos o a todos cuantos toman parte en el entierro, con una comida o con una sencilla refacción, suerte de banquete fúnebre que hoy no tiene desde luego el contenido místico de antaño.

En Otazu, después de las exequias, los asistentes, distribuidos en dos grupos —el de *honra* y el de *caridad*—, pasan a la casa mortuoria, donde son obsequiados con pan, queso y vino. También les dan ciruelas pasas, de las que cada uno guarda unas pocas para distribuir las entre sus familiares, que así quedan obligados a rezar por el difunto. Después todos se reúnen

(1) José Miguel de Barandiarán, *Matériaux pour une étude du peuple basque: à Uhart-Mixe* (IKVSKA, n.º 6-7, págs. 174-175).

(2) José Miguel de Barandiarán, *El mundo en la mente popular vasca*, t. IV, pág. 69 (San Sebastián, 1966).

ingurura eta onek Gure-Aita, Agur-Erregiña eta Sines-
ten-det guztiekin otoizten du eta «guztiok zeruan ikus
gaitzela» esan. Orduan gazte batek zaarrari ardoa es-
keintzen dio eta zaarrak, buruutsik jarri-ta, edaten du
eta ondoren berdin gaiñetikoak ere (3).

Lafitte'tar Pierre jaunak Ithurrotz'en 1911ko Epail-
laren 27n egunean, bere aitatxiren illetan ikusi eta egin
zuana jaulki digu: «Ehortzetan gertatu gende guziak go-
mit ziren bazkariterat. Familiakoek elgartarteaz jan gi-
nuen gaineko sala batean. Gaineratikoak «borda» errai-
ten ginion eskaratzean. Bazkal ondoan abisatu gintuzten
beherean othoitzak hastera zoatzila eta jauts ginten nor
gure basoarekin: basoan behar zen utzi ditaretara bat
arno. Gu bordan sartzean bazkaltiar guziak xutitu ziren,
bakotxa bere basoa eskuan, eta zerbitzariak mahaineta-
rik kendu zituzten dafailak. Xantrea, Victor Coustau.
Erretoraeneko buru-bastu zen, eta denek hustu zuten
basoko arnoa mahain-gainerat ixuriz, nik ere bertzek
bezala. Orduan guziek eskuineko esku-erbi puntak busti
zituzten arno hortan ur benedikatua izan balitz bezala,
eta zeinatu ziren... Geroztik galdatu izan diot Victor
Coustau zenari, zertako zen arno-ixurtze hori, eta ez diot
bertze argitasunik jalgi ahal izan hau baizik: «Gure za-
harrek hala egiten ziteian» Niri ez daudet burutik athe-
rako latin-paganoek «libatio» deitzen zuten ohidura gel-
ditu zitzaikula Ithorrotzen eta Olhaibin, bainan poxi bat

(3) Barandiaran'go J. M., *Creencias y ritos funerarios*
en Otazu («Anuario de Eusko-Folklore», III, or. 67).

alrededor de uno de los ancianos del séquito, quien
dirige seguidamente el rezo de dos *Pater, Salve* y *Credo*,
terminando con estas palabras: «en el cielo nos veamos
todos». Entonces un mozo se acerca al anciano y le
ofrece vino. El anciano se descubre y lo bebe, y lo mis-
mo hacen todos los presentes al acto (3).

M. Pierre Lafitte describe así lo que él mismo pre-
senció el día 27 de marzo de 1911 en Ithorrotz con
motivo de la muerte de su abuelo:

«Todos los asistentes al entierro fueron invitados
al banquete. Los familiares comimos juntos en la sala
superior; los demás abajo, en el departamento llamado
borda. Después de la comida nos indicaron que abajo
iban a empezar las oraciones y que bajáramos todos,
cada cual con su vaso: en éste debía ir un dedal de
vino. En cuanto entramos en la *borda*, todos se pu-
sieron tiesos, cada uno con su vaso en la mano. Las
sirvientas retiraron de las mesas los manteles. El chan-
tre, Víctor Coustau de Erretoraene, se descubrió, y to-
dos vaciaron los vasos derramando el vino sobre las
mesas; también yo, como los demás. Entonces todos
mojaron en ese vino las puntas de sus dedos de la mano
derecha como si fuese en agua bendita, y se santiguaron.
Más tarde pregunté, en varias ocasiones, al difunto Víc-
tor Coustau qué sentido tenía aquella ceremonia; pero
no logré otra explicación que ésta: *nuestros ancianos*
así lo hacían. A mí no me quitarán de la cabeza que
la «libatio» de los latinos paganos se nos había que-

(3) José Miguel de Barandiarán, *Creencias y ritos fu-
nerarios: en Otazu* (ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE,
III; pág. 67).

girixtinotua, kurutzearen seinalearekin nabastekatua zenaz geroz» (1).

Zegama'n illetara joaten direnai ogia eta ardoa ondoren ematen die. Oturuntza oni karidadea deitzen diote. Bakoitzak ogi-puska bat gorde oi du etxekoentzat, leenago elizak, igandeko mezan, ematen zuen ogia eramaten zan bezela.

Galarreta'n gazta eta maats-tximelak ematen die. An ere bakoitzak maats-aleak etxekoentzat eramaten ditu, guztiak Gure-Aita illaren alde esan dezaten.

Salzedo'n ere abukuan bi sail dira, Otazu'n eta Ithorrotz'en bezela: honra'ko ena —aide eta beste nor urkoena— eta karidade'koena. Sail bakoitzak elizan bere toki berezia izaten du illetan; berdin ildakoaren etxean ere, elizkizunaren ondoren ara joaten diranean: honra'koak etxan sartzen dira et karidade'koak atarian gelditzen. Guztiak an, erriko apaiza buru dutela, illaren alde otoitz egiten dute. Gero karidade-saillekoak ogia eta ardoa artzen dituzte eta ondoren, zutik, zaar batek bidatuaz, illaren alde Gure-Aita eta Agur-Mari esaten dituzte. Baita Agur-Erregiña ere, eta bereala, «zeruan ikus dezagula» esan-da, aldegiten dute. Bitartean honra-saillekoak, sakristauarekin, etxebarruan jaten dute. Aseran eta azkenean, aide urbillena —zaarrena edo izentatue-

(1) Pierre Lafitte, *Atlantika-Pirene-etako sinheste zaharrak*, or. 8 («Gure-Herria», Bayona, 1965).

dato en Ithorrotz y en Olhaibi, si bien algo cristianizada mediante la señal de la cruz» (1).

A los asistentes al entierro sirven pan y vino en Cegama. A tal refacción llaman «Karidadea» y los que de ella participan guardan un poco de pan para llevarlo a sus casas y dárselo a comer a sus familiares en la misma forma en que se procedía con el pan bendito que era repartido en las iglesias durante la misa dominical hasta hace poco.

En Galarreta sirven pasas y queso y de aquéllas todos guardan algo para llevar a sus casas y repartirlo a sus familias a fin de que cada uno rece por lo menos un *Pater* por el alma del difunto.

En Salcedo el cortejo fúnebre está formado, como en Otazu y en Ithorrotz, por dos grupos: el de *honra*, que comprende a los parientes y personas más allegadas, y el de *caridad* formado por los demás asistentes. Ocupa cada grupo su sitio en la iglesia; lo mismo en la casa mortuoria a donde todos van después del sepelio, introduciéndose en el interior los primeros y quedándose los otros delante del edificio. Allí todos, bajo la dirección del cura del pueblo que se halla en la puerta, hacen un rezo por el difunto. Después los del grupo de caridad son obsequiados con pan y vino, y a continuación todos se levantan y un anciano les invita a que recen por el difunto y él mismo recita un *Pater* y *Ave* que son contestados por los concurrentes. Luego rezan una *Salve* y se despiden diciendo: «en el cielo le veamos». Los del primer grupo —de *honra*—, así

(1) Pierre Lafitte, *Atlantika-Pirene-etako Sinheste zaharrak*, p. 8 (GURE HERRIA, Bayona, 1965).

na— bidazle dutela, illaren alde otoitz berak egiten dituzte (2).

Ikusten danex, ahukuan bi sail Euskalerrria'n leen-dik izan oi dira: bat, etxeko eta leenate diranena —beartuena—; bestea, karidadez edo beartu gabekoena. Le-nengoak, berezko eskarriz ildakoaren etxearekin loturik daudenak; bigarrenak, ez etxeko ez aide direnak, goi-mallan —karidadez— illarekin sinimen eta itxaropen bera dutelako, eldu direnak.

Diogun onek, giza-bizitzagaz irizpide bat eta elkaar-tearen egitearau berezi bat adierazten digu: etxea etxe-koen euskarri eta bana-eziñezko muña dala, illen orroi-tzapena esoiñ duela.

— ILLARRIA —

Etxe bakoitzak ba-zuen —orain ere askok ba-du-te— elizan edo elizaldean bere illobia. Elizan bere esta-liak —gaineke artxabalak— etxearen zati eta yarlekua bereixten du.

Kristau-aroa baño leen, etxea bera zan, dirudienex, etxearen illerri.

(2) «Anuario de Eusko-Folklore», III, or. 52, 59 eta 111.

como el sacristán comen dentro de la casa mortuoria. Al empezar y acabar el ágape «rezan todos en la misma forma que en la *caridad*, con la sola diferencia de que esta vez dirige el rezo el pariente más caracterizado por su edad o dignidad» (2).

Como se ve por los datos que hemos recogido, la distinción de dos grupos en la comitiva fúnebre —el de aquellos que van por obligación y el de los que van por *caridad*— parece haber sido general en el país. Los primeros son de casa o tienen lazos especiales que los unen con ella. Los del segundo grupo no pertenecen a la casa; pero están unidos con sus moradores en otro nivel social, donde el aglutinante es la *caridad* cristiana basada en una misma fe y en una misma esperanza.

Todo esto responde a una concepción de la vida y a un plan y ordenamiento social en el que la casa es considerada como el centro de una entidad o grupo doméstico y como núcleo y base inviolable e indivisible de la familia al que da firmeza y consistencia su vinculación con los muertos.

— LA TUMBA —

Cada casa posee —o poseía— su tumba junto a la iglesia parroquial, o dentro de ésta, en cuyo caso la losa que la cubre es el *yarleku* o parcela adscrita a dicha casa.

Pero antes de la introducción del Cristianismo la casa misma debió de servir de sepultura familiar.

(2) ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE, III págs. 52, 59 y 111.

Ataun-Burunda-Altzani eskualdean Eneolitos-aroko illarri edo trikuari —dolmen— asko dira. Ango mintzaerari jentiletxeak dira. Zegama-Saadar mendian dagon trikuarriari Tartaloetxe diote; Arrizala izeneko errian dagonari, Sorginetxe; Elvillar'goari, Chabola de la hechicera; Mendibe'koari berriz Mairietxe.

Ba-liteke etxe izena trikuarriari berriki ezarria izatea, naiz eta illarri oek egiaz etxeakin zerikusirik ez izan. Baiñan trikuarri asko nun kokatuak dauden begira, beren egilleak urbil bizi zirala iduri zaigu. Armura oien banaketa eta eda-oroiak, oraingo artzai larraldazaleen iduria aski bururatzeko digute: beren bizikerari zegokien tokiak sarotzat artzen zituzten. Eta toki oietan dira preseski trikuarriak ageri.

Geroago ere illarriak etxean edo etxeondoetan egon oi ziran: Salbaterrabiden ageri diran obizuloak ala adierazten digute.

Ondiño geroago (bisigotaldian), Araba'n ditugun eskuzegiñiko arpeetan, bizilekuak eta illobiak toki berean daude.

Oitura au, naiz eta motzitu, gaurdain iritxi zaigu. Mende onen aseraz gero ere, bataio gabe iltzen ziran aurrak, etxe-oapean eta ittuzuran edo ondoko baratzen ebortzen zituzten. Kristauari zegokion bezela joka etzana.

En la montaña de Ataun-Burunda-Altzania se halla una serie de dólmenes o sepulturas de la edad del cobre (eneolíticas). Su nombre vulgar, tal como ha llegado a nosotros, es *jentiletxe* «casa de gentiles». Un dolmen de la montaña de Saadar (Cegama) tiene por nombre *Tartaloetxe* «casa de Tartalo»; otro de Arrizala, *Sorguinetxe* «casa de brujas»; otro de Elvillar, *Chabola de la hechicera*; otro de Mendive, *Mairietxe* «casa de los Mairi».

Es posible que el empleo del vocablo *etxe* «casa» para designar tan antiguas sepulturas no se deba precisamente a relaciones de éstas con habitaciones humanas. Pero, dada la situación de muchos dólmenes de nuestro país, puede decirse que las viviendas de sus constructores debieron estar al lado. La distribución y el área de estos monumentos nos recuerda una población pastoril como la actual trashumante, con majadas en sitios apropiados a su modo de vida. En éstos precisamente se halla la mayor parte de los dólmenes.

En época más reciente se repite esto, a juzgar por los restos de habitación y los fosos sepulcrales de la edad del bronce situados en Salbaterrabide.

Más recientes (época visigótica) son las habitaciones con sepulturas de las grutas artificiales de Alava.

Esta costumbre, si bien restringida a determinados casos, llegó hasta nosotros. Es conocida la práctica, observada todavía en el primer cuarto de este siglo, de enterrar bajo el alero de la casa o en el *baratza* «huerto» contiguo a la casa, a los niños muertos sin bautismo, lo mismo que la exigencia, estereotipada en dichos po-

gaz, ba-zan esaera bat: iltzen zelarik, bere etxeko oapean ehortzi bearko zutela, alegia.

Benabarre'ko erri askotan, etxeondoko lurraldetxo batean lili utsak azitzen dituzte. Ori da Etxekanderea-ren baratza. Bataio gabe iltzen diran-aurrak —kristau ez diranak— or ehortzen dituzte (1).

Illobiaren eta baratzaren gogapenak uztartuak di-joatz. Jentilbaratza izeneko antziñ-gastelu bat —gaur oso porrokatua— Ataun-Arrateta mendarteko tontor batean dago: an ehortzirik daudela jentillak beti entzun izan genduan. Naparro eta Gipuzkoa'ren muga, XIII, XIV eta XV mendeetan ba-zuen oraindik zeregin.

Arano'n berriz jentillbaratz eskualde artako leengizonen arrespillezko illarriai deitzen die.

Oyartzun'en, ango mendietan diran orrelako errespillai mairubartzak esaten omen die.

Bataio gabe iltzen ziran umeak etxebarruan ehortze-ko oitura zan Araba'ko Errioxa'n. Bizkai'n eta Gipuzkoa'n berriz, orrelako aurrak etxeko arresiaren eta ituzuraren artean ehortzea zan oitura.

Gai onezaz Anuario de Eusko-Folklore izeneko liburuan (V, 62n or. Vitoria'n 1925n urtean) auxe Kor-

(1) Pierre Lafitte, op. cit., or. 7.

pulares, de que la persona cuya conducta no se ajusta a normas cristianas, debe ser enterrada, a su muerte, bajo el alero de su propia casa.

En muchos pueblos de Baja Navarra no plantan más que flores en una pequeña parcela contigua a la casa. La llaman *Etxekanderearen baratza* «huerta de la señora de casa». En ella son enterrados bajo teja los niños muertos sin bautismo o que no son cristianos (1).

El concepto de sepultura ha estado muy ligado con el de huerta. *Jentilbaratza* «huerta de los gentiles» es una antigua fortaleza, hoy arruinada, situada en un elevado picacho sobre el desfiladero y puerto de Arrateta (Ataun): se dice que allí están enterrados los gentiles. Enclavada en los confines de Navarra y de Guipúzcoa, estaba en funciones en los siglos XIII, XIV y principios del XV.

El mismo nombre *Jentilbaratza* designa en Arano los numerosos cromlechs existentes en aquella región.

En Oyartzun llaman *mairubaratza* «huerta de los mairu» a los cromlechs que existen en los montes de aquel pueblo. Dicen que en ellos están enterrados los *intxixu* o brujos.

En el caso que estamos tratando de los niños muertos sin bautismo, el enterramiento se hacía en el recinto de la propia casa en la Rioja alavesa. En Vizcaya y en Guipúzcoa se hacía alrededor de la casa, entre el muro de ésta y la línea de la gotera.

A este propósito consigné en el *Anuario de Eusko-Folklore* (tom. V, pág. 62. Vitoria, 1925) los siguientes

(1) Pierre Lafitte, *Atlantika-Pirene-tako Sinheste zaharrak*, pág. 7 (GURE HERRA, Bayona, 1965).

tezubi'ko oikundeezaz idatzi nuan: *Itxusuria* teillatutik jauzi ittutearen eta onek artzen duan lurraren izena da. Toki ori, bataio gabe iltzen diran aurren ehortzi-lekua da. Ala entzun dute orregaz nerekin mintza diranak. Oetako batek —Bengoetxea'tar Laurentzi'k— ikusi zuen, orain ogeitabost urte, aur baten ehortzea Andikoetzeta izeneko baserriaren itxusurian. Beste batek —Aranaz'tar Matias'ek—, orain berrogei ta amabost urte, orrelako ehortzketa bi Errigoiti'n bi etxetako itxusuritan ikusi omentzituen. Liburu berean —126n orrialdean— Oyartzun'go Argiñene baserriaren baratzen, mende onen aseran, bataio gabe il zan aur bat ehortzi zutela idatzia dago. Sara'n ere orrela egin oi zutela, 1942n urtean esan zidaten.

Oitura au Euskalerrria'n oso edatua egon dala eza-
gun du; elkarregandik oso urrun diren errietan ageri bai
dire bere aztarnak: Errioxa, Liginaga; Berriatua, Uhart-
-Mixe; Kortezubi, Ithurrotz; Ataun, Sara; Mendaro,
Oyartzun; Aretxabaleta, etc. (1).

Oitura onekin estekatua dabil argiak eta janariak
edo diruak oparitzat etxeko leioan —baratz edo etxetiar
obigañean— gauaz jartzea, ildakoai zerbait eskatuaz:
galdu dan abere bat agertzea edo beste.

(1) Barandiaran'go J. M., *Mitología vasca*, or. 127-128. Madrid, 1960.

